



## Oinarriak:

Abian da 'Arnasetik' bideo sormen lehiaketaren hirugarren edizioa, euskararen arnaguneak osatzen dituzten udalerrietako gazteei zuzendua (LH-5etik DBH-4ra). Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta UEMAK sustatutako ekimena da, eta udalerrri euskaldunetako gazteen hizkuntza ohituren inguruan gogoeta piztu nahi du. Gaur egungo gazteen komunikazio-hizkuntzara eta teknologia berrietara egokitutako lehiaketa da, eta teknika, tratamendu, genero, sorkuntza prozesu eta gai desberdinak landuko dira. Hala, euskaraz ekoitzitako ikus-entzunezko piezen eta sormen lanen erakusleio bihurtuko da Arnasetik.

Gazteen etorkizunerako begirada sortzaileak pizteko asmoarekin, lehiaketan modu ezberdinetan parte-hartzeko aukera egongo da eta kategoria ezberdinetako bakoitzean sariak egongo dira. Horrek esan nahi du banaka edo talde lanean jorratu daitezkeela lanak.

### 1. Lehiaketaren helburuak:

Helburu nagusia da arnaguneetako gazteak ahalduntzea eta arnaguneen garrantzia ikusaraztea, bai eta komunitatea indartzea ere (arnaguneen arteko loturak).

### 2. Sustatzaileak:

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta UEMA.

### 3. Parte-hartzea:

- Arnaguneetako 10-16 urte bitarteko edozein sortzailek har dezake parte Arnasetik programan, aurrez aipaturiko formatu ezberdinetan (banaka, taldeka edo ikaskideen artean).
- Parte-hartzaileek aurrez adierazitako prozesuan parte hartu eta lehiaketarako epeak eta irizpideak bete beharko dituzte.

### 4. Kategoriak:

Adinaren arabera sailkatutako hiru kategoria daude eta kategoria bakoitzean aurkeztu beharreko lanak ezberdinak izango dira.

- **A kategoria: Txokorako bidea** · LH 5-6
- **B kategoria: Prestatu nirekin** · DBH 1-2
- **C kategoria: Bosteko katea** · DBH 3-4

### 5. Lanen irizpideak:

- Oinarria:
  - **Txokorako bidea:** seguru gaude zuen herrian mila txoko berezi eta kuttun daudela. Aukeratu bat edo batzuk eta kontatu zerk egiten dituen berezi, norekin eta noiz joaten zireten...
  - **Prestatu nirekin:** urte guztia noiz iritsiko zain egoten zireten egun handi hori zein da? herriko jaiak, inhauleriak, azoka bereziaren eguna... Erakutsi zerk egiten duen berezi, nola prestatzen zireten...
  - **Bosteko katea:** beste norbaiten larruan jartzeko aukera izango bazenute, zure herriko nor izan nahiko zenukete eta zergatik? Galdera honi erantzunez osatu bosteko katea.
- Hizkuntza: euskara izango da lehiaketara aurkezten diren lanetan erabiliko den hizkuntza, bideo-istorioen elkarrizketak edo off ahotsa erabiltzen badira.
- Iraupena: lanek gehienez 2 minutu iraungo dute.
- Gai tratamendua: ez dira onartuko arraza, sinesmen, etnia, adin, erlijio, sexu, genero identitate, sexu orientazio, itxura fisiko edo pertsonen gaitasunak iraintzen, gutxiesten

- Formatua: bideoa formatu horizontalean edo bertikalean grabatu daiteke. Edizioa eta post-produkzioa ere nahi diren programekin egin daitezke edo jazartzen dituzten lanak. Hala ere, antolatzaileek ez dituzte bere egiten bideo-istorioetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota emandako iritziak, beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzukizunik.
- Ikasleek egindako lanak izan behar dira.

### 6. Izen-ematea:

Lehiaketa [www.arnasagara.eus](http://www.arnasagara.eus) atarian zentralizatuko da. Bertan, informazioa, material eta baliabideak, izen-ematerako eta jarraipenerako bideak, etab. eskainiko dira. Parte-hartzaileek bertan izena emango dute eta beraien datu eta lanen erabilerarako baimena emango dute. Jasotako sormen istorio guztiak (parte hartzeko baldintzak bete dituztenak) online aurkeztuko dira. Lanen aurkezpenerako jarraitu beharreko pausoak hurrengoak izango dira:

- <https://www.arnasagara.eus/arnasetik-bideosormen-lehiaketa/> webgunean "parte hartu" galdetgia bete (atal guztiak).
- Izena ematerakoan pribatutasun eta erabilera abisuak onartuko dira.
- Lanak Wetransfer ala antzeko Interneteko bidalketa tresna bitartez helarazi beharko dira hurrengo helbidera, adierazitako epean: [arnasagara@gmail.com](mailto:arnasagara@gmail.com).
- Mezuan zehaztu beharko dira:
  - Lanaren izenburua.
  - Parte-hartzaileen izen abizenak (norbanakoenak edo taldekideenak).
  - Kontakturako telefono zenbaki bat.



## Oinarriak:

Artxiboek 2GB baino gutxiagoko tamaina izan beharko dute.

### 7. Epeak:

- Lanak aurkezteko azken epea: **irailaren 16tik- urriaren 31ra.**
- Sari banaketa ekitaldia: **azaroak 28**

### 8. Hedapena:

- Antolakuntzaren esku gelditzen dira lehiaketara aurkeztutako lanen erabilera eskubideak. Betiere, lan horien hedapena egingo da lehiaketaren asmoa beteko duten ekimen eta eginkizunetan.
- Egileak haien lanen eskubideen jabe izanda, Arnasetik lehiaketak irabazleen bideoak proiektatzeko eta bere plataformetan partekatze baimena izango du, programak egiten duen edozein sustapen ekitalditan.

### 9. Epaimahaia: lanak baloratzeko neurriak eta irizpideak.

Epaimahaia programa sustatu, dinamizatu eta laguntzen diharduten erakundeetako ordezkariak osatuko dute. Ikuslearen saria bozketa bidez erabakiko da.

- Epaimahaiak horrela erabakiz gero, sariak hutsik geratuko dira.
- Epaimahaiak aurkeztutako lanen artean aipamen berezia egiteko ahalmena dauka. Horrek ez du ordainsaririk izango baina bai merezitako onarpena.
- Sariak jaialdiaren amaierako ekitaldian jakinarazi eta banatuko dira. Irabazleak edo haren ordezkariak amaiera ekitaldian parte hartzea aurreikusten da. Hala ere, irabazleak bertaratu ezingo balu saria jaso ahal izango du aurrerago.
- Lanak baloratzeko erabiliko diren irizpideak ondorengoak dira:
  - Bosgarren puntuan aipatutako irizpideak betetzea.
  - Euskararen erabilera.
  - Sormena.
  - Gidoigintza.

### 10. Sari nagusiak:

2.000 euro banatuko dira 4 kategoriatan. Kategoria bakoitzak 500 euroko saria izango du.

- A kategoriako lanik onena.
- B kategoriako lanik onena.
- C kategoriako lanik onena.
- Publikoaren saria.

500 euroko sari bakoitza, honakoetan gastatu ahal izango da nahi den moduan: IrisarriLand-en, Durangoko Azokan, EITB-ko Goazen! eta Irabazi arte! telesailen merchandising-ean, etab.

### 11. Oinarriak onartzea:

Lehiaketan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.

- Lanak aurkeztu beharko dira Creative Commons lizentziarekin.
- Musika erabiltzekotan lizentzia librekoa edo bideoarentzat propio sortutakoa izan behar du.
- Lehiaketako parte-hartzaileak adin txikikoak izanik, lehiaketan parte-hartzearekin ulertuko da adin-txikikoak bere tutore legalen oniritzia duela eta ondorioz, irudi erabilera baimendua dagoela.
- Ondorioz, aurkeztutako lanak eta sari banaketan ateratako irudiak Arnasa Gara webgunean eta bere sareetan, zein egitasmo honen sustapen helburuak dituen beste edozein kanaletan erabiltzeko baimena ematen dela ulertuko da.
- Ez dira onartuko eduki iraingarriak edota, errespetu gabekoak. Bideoren bat egokituz jotzen ez bada, lehiaketatik kanpo geldituko da.